

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2013ko maiatzaren 17a. IX. urtea. 2.596. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Espainiako militarren presentzia «soberan» dagoela esan dute udalek

Tolosako eta Ibarako alkateek gogor salatu dute Izaskunen Espainiako armadak egindako martxa; Iriartek eta Peñagarikanok «probokazioa» izan dela esan dute

Armak soinean dituztela 40 militar inguru ibili dira Uzturre inguruan; mendizaleak eta bizilagunak harrituta gelditu dira Espainiako militarren presentziarekin 03



Espainiako armadako 40 militar inguru, atzo, Izaskun auzoan eta Uzturre mendi inguruan ibili ziren. HITZA

Kontratazio publikoetan euskara sustatzen segiko du Anoetako Udalak

Aldundiak babesaz azaldu die Anoetako eta Lezoko udalei eta kontratazioetan hizkuntza irizpideak ezartzea legezkoa dela esan du 04

Hamazazpi herritan mobilizazioak antolatu ditu Herrira-k bihar

Euskal preso eta erbesteratuen eskubideen alde 'Plazak bete' ekimena aurkezteaz gain, herritarrei bertan parte hartzeko eskatu diete 05

 LANBIDE HEZIKETA ATE BIKEN LAGUNTZA ZORRAZ PUERTAS ABERTIKI	 MIGRANZA ATE BIKEN LAGUNTZA www.salvacionemigrata.com 943 531 700	 MAIATZAK 22-23 MAYO Ostiralek / Martes 17:00 - 20:00 www.atebiketaren.com
--	---	---

Museoek euren eguna ospatuko dute, bihar 06

ATE IREKIAK
MAIATZAK 29
17:00 - 20:00

DISEINUA.

3D ANIMAZIOA

Aurrematrikula maiatzak 27 / ekainak 7

.01 AURREMARIKETA DISEINUA TEKNIKARA 30 HATZA	.02 ARGIALPEN DISEINUA PRODUKZIOAN 30 HATZA	.03 3D ANIMAZIOA, JONGA ETX INGURUNE INTERAKTIBOETAN 30 HATZA 30 HATZA
---	---	--

200

TITULAZIO OFIZIALAK

Herrera Puzosak 10 - 20080 Donostia - Gipuzkoa - 943 531 700 - www.ceipro.eus

→ **Laburrak**

Arroila jaitsiera Oargi mendiko elkartearekin

MENDIA › Arroila jaitsiera antolatuta dute Oargikoek, datorren astebururako. Larunbatean Artazul arroila jaitsiko dute, Nafarroan. Igandean, berriz, La Lezeko kobazulora joango dira. Neoprenoa, arnesa, bileretara lotzeko kaboa, kaskoa, frontala eta zortzia eraman beharko dira. Neoprenozko eskularruak eta eskarpinak eramatea ere gomendatu dute. Izena emateko: 688 69 86 42 edo info@oargi.org; azken eguna maiatzaren 23a izango da.

Zabalik da musika eskolako izen ematea

MUSIKA › 2013-2014 ikasturterako matrikula epea zabaldu dute Eduardo Mokoroa Udala Musika Eskolan. Maiatzaren 13tik 24ra bertako ikasleek txanda izango da, eta ekainaren 4tik 7ra, berriz, lehenengo aldiz instrumentua hartzen duten bertako ikasleena. Ekainaren 13tik aurrera, ikasle berriek izena eman ahal izango dute, plazak bete arte, eta irailean leku hutsak baleude, matrikulazio epea bi astez irekiko lukete.

Saskibaloiko teknifikazio saioa igandean

KIROLA › Igandean, maiatzak 19, saskibaloiko teknifikaziorako jardunaldia antolatu du TAKE saskibaloiko taldeak. 11:30etik aurrera, Usabal kiroldegiko beheko kantuan ariko dira, 2001etik 2004ra bitarte jaiotako neska-mutulekin. Prestakuntza lanak bertako entrenatzaile eskarmentudunek egingo dituzte, eta edozein ikastetxetako kideek parte har dezakete.

Merkatu txikia Amarotzen, Nikaraguaren alde

GIZARTEA › Nikaraguaren aldeko merkatu txikia gaur amaituko da Amarotz auzoko lokalean, eta 16:00etatik 19:00etara bitarte zabalik izango da.

DBH 4ko hautazkoak aukeratzeko bilera Orixen

HEZKUNTZA › Orixe institutuan, DBH 4. mailarako aukeratu beharreko irakasgaien inguruko informazio saioa izango da, datorren asteazkenean, maiatzaren 22an. Gorosabel eraikineko liburategian elkartuko dira, 19:00etan.

Birziklapen bira ekimena Tolosara ailegatu da

INGURUMENA › Tolosaldeko mankomunitateko Birziklapen bira Tolosara iritsi da, eta birziklatze gunea bihar, maiatzaren 20an eta 24an Trianguloan izango da. Horrez gain, tailerrak Abastosen hilaren 20an, eta Emeterio Arresen 28an, izango dira; 19:00etan euskarazko saioa egingo dute, eta 20:00etan gaztelarazkoa.

Bisiguiaren festako txartelak eskuragarri

GIZARTEA › Txinparta elkarteak bisiguiaren festa antolatuko du aurten ere, maiatzaren 31n, ekainaren 1ean eta 2an. Orioko Katxina, Xixario eta Jose Mari jatetxeetako parrileroek prestatutako bisigua dastatzeko aukera izango da, bestelako jakien artean: antxoak gatzetan, tomate entsalada hegaltzearekin, zainzuriak, Bixigoxo postrea, edariak eta kafea. 45 euroko prezioa izango dute bazkari eta afariek. Erreserbak Tolosaldea Tour-en egin behar dira, 943 697 413 deituta, edo tour@tolosaldea.net posta elektronikora idatzita.



Askotariko probak antolatu dituzte Ahora! Asteko patin festarako. N.URBIZU

Patinen eta skaten gainean hasiko dute Ahora! Astea igandeko festan

Astelehenean Kike Amonarrizen hitzaldia izango da kultur etxean, Tolosako umorezko agiri historikoekin

I. Urbizu Tolosa

Kilometroak 2013 Tolosan ospatzeko bost hilabete falta direla, Ahora! Asteari ekingo diote, etzi, antolatzaileek. Igande goizerako familia osoari begirako hitzordua prestatu dute, eta Irristaka taldearekin elkarlanean, patin festa izango da San Frantzisko pasealekuan.

10:00etan elkartuko dira adin guztietako patinatzaileak, eta garrantzia berezia eman diote, kaskoa eta gainerako babesgarriak eramateari; derrigorrezkoa izan-

go da. Eguna hasteko, beraz, herrian barrena 3.5 kilometroko zirkuitari itzuli bat emango diote, eta tolosar gaztetxoek ibilbide laburragoa egiteko aukera izango dute.

Ordu bete beranduago, taldekako probekin hasiko dira parte hartzaileak, erlojuaren aurka. Taldeak lauzpabost kidekoak izango dira, eta 600 metroko zirkuitu bati lau edo bost itzuli eman beharko dizkiote. Gauza bera egin beharko dute 12:00etako proban, baina txandaka; taldekide bakoitzak, horrela, buelta bat eman beharko dio zirkuituari.

Patinajeari eskainitako goiza amaitzeko, 13:00ak inguruan erakustaldiak izango dira, eta askotariko jarduerak ezagutu eta probatzeko aukera eskainiko dute kalean, nahi duenarentzat: salalom, hockey, eta abar.

Aipatzekoa da, proba hauetan guztietan parte hartzeko, izena eman beharko dela, hasi baino 30 minutu lehenago izango delarik horretarako aukera, San Frantzisko pasealekuan izango den irteera puntuan.

Arratsaldean, berriz, skatearen txanda izango da. Tolosako Skate Taldearen eskutik, 17:00etatik aurrera, zortzi urtetik gorako haur eta gaztetxoentzat ikastaroak izango dira, Usabalgo skate parkean. Hemen ere, derrigorrezko baldintza izango da, gutxienez, kaskoarekin joatea, eta bestelako estalki eta babesak ere gomendatu dituzte.

Herria eta umorea, eskutik

Igandeko jai egunaren ondoren, Ahora! Asteari umoretik ekingo diote, Kike Amonarrizek eskainiko duen saioarekin: *Tolosa Eskal Herriko irriburu. Euskara eta umorea historian zehar.*

Hitzaldiaren izenburuan dioen moduan, umorea eta euskara uzartuko ditu tolosarrak, eta batez ere Tolosari begira jarriko da: «Euskarazko umoreak Tolosan utzi dituen datuak, gertakariak, eta batez ere, bitxikiak izango dituzte hizpide». Hau guztia azaltzeko, agiri eta dokumentu historikoko hartuko ditu oinarri.

Saioa 19:30ean hasiko da, astelehenean, Antonio Maria Labaien kultur etxeko areto nagusian.

• tolosa@hitza.info

www.inmosalbide.com

Aia. Baserria berri berria. 125m²-ko bi solairu ditu. 25 m²-ko terraza. Terrenoa, 110.000m². 50.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berriua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!

Donostia. Amara-Amezketako kalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

Zarautz. Azken Portu. 92m² ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria. 54.000.000 pezeta.

Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

Zarautz. Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Espainiako militarren presentzia salatu dute Ibarra eta Tolosako udalek

Izaskun auzoan eta Uzturre mendiaren inguruan izan da Espainiako armada martxa bat egiten

Imanol Garcia Landa

Izaskun auzoan eta Uzturre mendiaren inguruan Espainiako armadaren presentzia salatu dute Ibarra eta Tolosako udalek. Jexux Peñagarikano Ibarra alkatetik azaldu duenez, «horrelako indar erakustaldia ez zaigu batere ondo iruditzen. Ez dute abisatu, eta hala egin izan balute ere, ez zaigu batere ondo iruditzen. Etorritzen dira kamioi batzuekin, armak erakusten, eta horiek guztiak soberan daude hemen». «Azken finean inbasioarekin jarraitzen dute, hau Espainia dela esanez, eta noizbehinka hori gogorarazten digute», esan du. Peñagarikanok gaineratu duenez, «berdin zaigu martxa bat izan den edo maniobra egin dituzten, azken finean indar erakustaldia izan da, eta herri honetan beste behar batzuk ditugu».

Ildo beretik mintzatu da Ibai Iriarte Tolosako alkatea: «Probokazio bat gehiago da. Militarren indar erakustaldiarekin azaldu nahi dute herri honek Espainiako Estatuaren menpe jarraitzen duela. Herri honen eskubideekiko erakusten duten jarrera inposatzaile horrekin, Espainiako Estatuari esan behar zaio gure askatasunerako eta independentziarako jarrera indartu besterik ez dutela egiten». Iriartek gaineratu duenez, «gure lurretan ez ditugu nahi, eta gure lurretatik joateko eskatu behar zaie». Horrelako jarduerak lekuz kanpo «beti» daudela esan du, eta «are gehiago» gaur egun, «suposatzen duten gastuarengatik».

40 militar martxa egiten

Harridura sortu du Izaskun auzoan Espainiako armada atzo goiz bertan egoteak. 40 militar in-



Hiru kamioi eta bi autotan izan ziren atzo Espainiako militarrek Ibarra eta Izaskun auzoan. HITZA



Urkieta baserriaren ondoko aparkalekuan izan zituzten ibilgailuak. HITZA

guru izan ziren, eta hiru kamioi eta bi auto eraman zituzten. Armak eskuan zituztela, martxa bat egin zuten menditik. Martxak iraun zuen bitartean, ibilgailuak Urkieta baserriaren ondoko aparkalekuan egon ziren. Ez zuten biderik itxi, eta mendizaleekin gurutzatu ziren militarrek.

Izaskungo bizilagun bat militarrengana joan zen, Izaskunen zer-

gatik zeuden jakiteko. «Martxa bat egin dutela, eta laster abiatuko direla esan dute», azaldu zuen bizilagunak, militarrek hamaiketako egiten ari zirenekin bitartean ibilgailuak aparkatuta izan zituzten lekuan. Bizilagun horrek berak azaldu du aurreko larunbatean Guardia Zibila izan zela inguru horietan: «Bi patrol izan ziren, eta zortzi guardia zibil inguru. Uz-

turre aldera joan omen ziren, eta Uzturrera joateko aldapa hasten den bidegurutzean jendea dokumentazioa eskatzen jardun zuten. Jendeak ez du normalean dokumentazioa eramaten mendira joaten denean». Bizilaguna kexu azaldu da: «Ez dakit zer gertatzen den hemen, zergatik etorri diren guardia zibilak orain gutxi eta orain militarrek». Beste bi bizilagun ere gerturatu ziren militarrek zeuden lekura. «Inpresioa ematen du militarrek ikusteak», azaldu dute.

Militar taldearen buru zen kapitainak Gipuzkoako mendietan horrelako martxak egitea «ohikoa» dela esan zuen. Martxa bat egitearen eta maniobra egitearen bereizketa egin zuen militarrek: «Maniobretan tiroak botatzen dira eta lehergailuak erabiltzen ditugu. Horrelako paraje naturaletan ez dugu hori egiten».

Maniobra edo martxa izan, atzo mendian zein Urkieta ondoko aparkalekuan militarrekin gurutzatu ziren mendizale zein ibiltarietarako harrituta begiratzen zieten.

→ Laburrak

Bizkarrezur minaren inguruko hitzaldia

IBARRA » Kiropraktikan aditua den Marmier doktoreak hitzaldia emango du asteartean, hilaren 21ean, 18:00etan, Uzturpe ikastolan. Haurren bizkarreko minaren prebentzioaz hitz egingo du.

Batzordearen bilera egingo dute astelehenean

AMEZKETA » Hirigintza, kultura eta ingurumen batzordearen bilera izango da astelehenean, hilaren 20an, 20:00etan, Amezketa udaltxeko batzar aretoan. Herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Magia emanaldia, gaur 17:00etan, kultur etxean

ALEGIA » Eskolako Iturri Zahar guraso elkartearen eskutik magia ikuskizuna izango da gaur, kultur etxean, 17:00etan. *Madiber: magia eta dibertsioa* izango da emanaldia.

Zaintza partekatua legearen aldeko ekitaldia

TOLOSALDEA » Euskadiko Guraso Bananduen Federakuntzak zaintza partekatua legearen alde ekitaldi bat antolatu du biharko. Arenal zubiaren ondoko elkarretaraztea egingo dute eta informazioa banatuko dute. Eskualde guztiari egin diete bertaratzeko deia.

Mintzalaguna jarri nahi dute martxan herrian

BERASTEGI » Mintzalaguna egitasmoa jarri nahi dute martxan Berastegin. Euskaldun zaharrek eta euskaraz hitz egiteko zailtasuna dutenak kafe bat hartuz edo beste edozein plan eginez elkartzea da asmoa, elkarrekin euskaraz solastuz. Ekimenean parte hartu nahi duten euskaldun zaharrek eta euskararen erabilera indartu nahi dutenek hilaren 27a baino lehen eman behar dute izena udaletxean.



berriak 10 urte
zatoz gurekin ospatzera

hitza

saridunak

HITZAK harpidedunentzat **5 sarrera** pare ditu

Anje Duhalde Kontzertua

Maiatzak 17 - Ostirala
20:30ean, Tolosako Leidorren

- Inma Zubeldia (Lizartza)
- Amaia Balerdi (Tolosa)
- Geno Otamendi (Alegia)
- Ines Berasategi (Tolosa)
- Joxe Antonio Artola (Tolosa)

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue.



sarrerak



Mundumob ekimena Aiztondora helduko da igande honetan

Anoetan frontoian, 18:00etan, eta Tolosan, Plaza Berrian, 19:00etan, entseguak egingo dituzte gaur

M. Iraola

Iraunkortasuna eta zero zabor herria bihurtzea aldarrikatzen duen Mundumob ekimenak Aiztondoko hiru herritan egingo du geldialdia igande honetan, *Eman hartu nahi duzun mundua* lelopean.

Lehenik eta behin, Adunako plazan izango dira, 11:30etatik aurrera. Ondoren, Zizurkilan egingo dute, 12:30ak aldera, eta amaizteko, 13:30ean, Amasa-Villabonan izango da.

Gaur, berriz, Anoeta eta Tolosan entseguak egingo dituzte ekimena bi herri horietara iristen denarako dena prest izateko. Anoetarren kasuan, 18:00etan egingo dute pilotalekuan. Tolosarrek, aldiz, ordu bat beranduago, 19:00ak aldera, Plaza Berrian.

Horrez gain, Tolosan beste entsegu bat egingo dute hurrengo ostiralean. Hau ere arratsaldeko zazpitan izango da, Plaza Berrian. Mundumoba, berriz, maiatzaren 31n egingo dute bertan, ostiralez.

• tolosaldean@hitza.info

Kontratazioetan hizkuntza irizpideak ezartzea legezkoa dela dio Aldundiak

36 udalek hartutako erabakia zilegi dela ikusita, aurreikusitako planekin jarraitzea erabaki dute

Mikel Iraola Anoeta

Urtarrilean, Gipuzkoako 36 udalek kontratazio publikoetan euskarari buruzko baldintza batzuk eskatzea adostu zuten. Espainiako Gobernuak ordezkaririk den Carlos Urkijok, ordea, hizkuntza auziengatik bazterkeriarik izaten utziko ez zuela adierazi zuen eta ikerketari ekin zion. Bada, orain, erabaki horien atzean delitu zantzuak daudela argudiatuz, helegiteak jarri dizkie abokatuak Gipuzkoako bi udalei: Lezokoari eta Anoetaoari. Erabaki horrekiko desadostasuna azaldu, eta bi udalei babesa emateko, agerraldia egin dute Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitzan, Zigor Etxeburua, Foru Aldundiko Euskarako Zuzendariak, Maren Belastegi, UEMAko lehendakariak, Mikel Arruti, Lezoko Udaleko zinegotziak, eta Pello Estanga, Anoetako alkateak.

Bertan, Urkijok egindakoa «Gipuzkoako udalen eta, batez ere, euskaldunon aurkako eraso politikoa» dela azpimarratu, eta bere horretan lanean jarraitzeko intentsioa dutela aitortu du Etxeburuak. Urkijok dioenaren aurka,



Maren Belastegi, Zigor Etxeburua, Pello Estanga eta Mikel Arruti, atzo Donostian, Aldundiaren egoitzan. M. IRAOLA

euskarara sustatzeko hautua «legezkoa eta normalizazioa bermatzeko» dela esan du Euskarara zuzendariak: «Ziurtasun juridikoa izan dugu oneoro, beraz, helegiteak ez du biderik».

Adierazpen horiekin bat egin du Pello Estanga Anoetako alkateak. Bere udalak «historikoki» euskararen aldeko erabakiak hartu izan dituela adierazi du: «Herritarren %70 euskaraz bizi da eta gure helburuetako bat euskarara baztertuta ez egotea izan da».

Informazio eske

Helegitea informazioa lortzeko soilik dela jakinarazi dute, eta horregatik, erabakia onartu zirene-

ko osoko bilkuretako aktak bidali beharko dituzte EAEko Entzutegi Gorenera. «Dokumentazio hori gazteleraz bidali behar dugu, argi utzi nahi izan dute nork agintzen duen», esan du Etxeburuak.

Dena den, kezkatuta agertu dira bi udaltek ordezkeriak eta Aldundiko zuzendaria, gainerako herriek ere helegitea jaso dezaketela pentsatzen baitute.

Helegite horien atzean, Urkijoren interes politikoa daudela salatu du Etxeburuak, «atzetik ez baitago inongo enpresa edo herritarren salaketarik, kontrakoa baiduzk». Kexak jaso ordez, hartuko dituzten neurrien irizpideak zeintzuk diren jakiteko, enpresa asko

eurekin harremanetan jarri direla azaldu dute.

Berrespena

Hori dela eta, kontratazio publikoetan euskarara sustatzeko neurri horien garapenean lanean jarraituko dutela adierazi dute Anoeta eta Lezoko alkateek, nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskarara zuzendariak: «Enpresa eta elkarteekin biltzeko asmoa daukagu baldintza hauek esaten dutena azaltzeko, eta gainerako herriei ere hori egitera bultzatuko diegu». Euskararen normalizazioa «berreskuratu eta ziurtatzeko» lanean jarraituko dutela ere azaldu dute.

Mauka berria

GAURKO ESKAINTZA

Osteratxo bat Elorriotik

Hotel elorrio
San agustín auzoa z/g
Elorrio 48230 BIZKAIA
Tel.: 946-23 15 55
info@hotelerlorrio.com
www.hotelerlorrio.com

Prezioa **50€**

berria taldea

www.mauka.eu

→ Laburrak

Lehiberri zentroaren aurkezpena, asteartean

ANOETA » Datorren asteartean, Lehiberri Zentroaren aurkezpena egingo dute udaletxeko pleno aretoan 17:30etan. Bertan, Pello Estanga, alkatea eta Jose Luis Urdangarin, Tolosa Garatzeneko kudeatzailea izango dira.

Eskolako material eta kamiseta bilketa, bihar

TOLOSA » Kirikiño Aisialdi Taldea, eskolako materiala (errotulagailu, guraize, arkatz, koaderno, boligrafo...) eta kamiseta zaharrak biltzen ariko da bihar goizean Saharako Kanpaina deituriko proiektuaren barnean. 10:30etik 13:30era bitartean, Triangulo plazan izango dira. Jasotako materiala, Saharako Bir Lehlur errefuxiatu kanpalekuetara bidaliko dute.

Sega Ligan izen emateko epea, astelehenera arte

TOLOSALDEA » Euskal Herriko V. Sega Ligaxkan izena emateko epea, astelehenera arte egongo da zabalik. Bertatik, Irailaren 6, 7 eta 8an, Hego Tiroren jokatuiko den Europako Sega Txapelketako Euskal Herriko ordezkeriak hautatuko dituzte. Datorren igandean, Basaburuan (Nafarroan) hasiko da liga, eta beste bi saio izango dira.

Laser Promozioa:
Maiatzaren 20tik ekainaren 3ra

Ingleak, 5 sesioko bonoa: 300 euro
Besazpiak, 5 sesioko bonoa: 195 euro

SHUYANA
ESTETIKA: Eskolapietako Lorategiak 3.1A. T. 943 675 489
KOSMETIKA: Korreo 1. T. 943 671 468

Plazak betetzeko deialdia egin dute Herrira-tik

Tolosaldeko eta Leitzaldeko hamazazpi herritan ekimen desberdinak antolatu dituzte bihar

Asier Imaz

Maiatzaren 18a egutegian markaturik zuen Herrira mugimendua. Euskal Herriko herrietan mobilizazioak antolatzeko deia egin zuen, eta Tolosaldean eta Leitzaldean, oihartzun zabala izan du eskariak. Hamazazpi herritan hainbat ekimen antolatu dituzte, eta herritarrei, *Plazak bete* ekimenarekin bat egiteko eskatu diete, *Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean.

Herrira mugimendutik azaldu dutenez, «Euskal Herrian bake egoera justu bat eraikitzeko aukera berriak» zabaldu dira. Hori gauzatzeko, hainbat urrats beharrezkoak izan direla azaldu dute Herrira-tik: «Euskal Herriko eragileen arteko elkarriketa eta



laz 'Goazen plazara!' ekimena antolatu zuen Herrira-k eskualdeetako herrietan. Irudian Leitzako mosaikoa. HITZA

akordioek, Donostian burutu zen Nazioarteko Bake Konferentziak, eta ETak behin betiko armak uzteko erabakiak euskal gatazka konpontzeko bidea ireki dute».

Gatazkaren ondorioak, aldiz, askotarikoak direla gogoratu

dute Herrira-tik, «eta denek behar dute konponduak izan». Bide horretan aurrera egiteko, «gatazkaren ondorioz preso eta erbesteratutako dauden herritarren egoeran arreta jartzea beharrezkoa» dela diote Herrira-tik.

Lehen urratsak zeintzuk izan behar duten garbi dute preso eta iheslarien eskubideen aldeko herri mugimendutik: «Euskal presoak Euskal Herriratzea; gaixotasun larriak dituzten presoak libre uztea; espetxe zigorren luzatzea-

rekin amaitu eta *de facto* bizi osorako espetxe zigorra suposatzen duten neurrien indargabetzea, eta pertsona bezala dagozkien giza eskubide guztien errespetua». Testuinguru honetan kokatu du biharko mobilizazio eguna Herrira-k: «Aldarrikapen hauei bultzada bat eman eta frantziar nahiz espainiar gobernuei urratsak eskatzeko, maiatzaren 18an Euskal Herrian eta mundu osoko hainbat herritan egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko eskatzen diegu herritarrei».

Leitzatik Iruñerako deialdia

Maiatzaren 28an Espainiako Auzitegi Gorenean bost nafarren aurkako espetxe zigorra berraztertuko da. Hori dela eta, Eleak Mugimendua batzar irekia antolatu du Txantrean maiatzaren 23an, ostegunean, 18:00etan. Batzarra Kaskallueta elkartearen egingo da. «Eskubide zibil eta politikoen alde». Leitzatik bertara joateko deialdia egin dute, «bost gazte nafarrei elkartasuna azaltzera eta euren eskubideak defendatzera».

↓ Egitarauak

ADUNA

- 19:00. Argazkia plazan.
- Ondoren. Afari merienda.

ALEGIA

- 12:00. Plaza bete ekitaldiaren ondoren, hamaiketakoa.

ALTZO

- 19:00. Frontoitik abiatuta giza katea plazaraino.

AMASA-VILLABONA

- 11:00. Buru handi eta erraldoi kalejira, dultzaineroen laguntzarekin, Errebote plazatik abiatuta.
- 12:00. Hamaiketakoa Malkar Plazan.
- Ondoren. *Plaza bete, preso eta iheslarien eskubideen alde* ekimena, eta argazki erraldoia.

ANOETA

- 12:00. Anoetako plaza betetzeko asmoz elkartuko dira.
- Ondoren. Hamaiketakoa.

ASTEASU

- 12:00. Plazan bildu ondoren, trikitalariekin kalejira egingo dute.
- Gero. Mosaiko erraldoia egingo dute.
- Ondoren. Hamaiketakoa.

BERASTEGI

- Goizean zehar. Herriko trikitalariak eta dantzariak ibiliko dira herrian zehar.
- Ondoren. Hamaiketakoa.
- 13:00. Elkarretaratzea pilotalekuaren aurrean.
- Ondoren. Kantu bazkaria aparkaleku azpian. Txartelak, Zelai eta Biltokin.

- Ondoren. Herritarren arteko futbol txapelketa mixtoa.

BERROBI

- 19:30. Elkarretaratzea.

IBARRA

- 08:00. Ibarra zikloturistek itzuliari hasiera emango diote.
- 09:30. Haitzen Raju menditaldearekin Uzturrera mendirteera.
- 11:00. Sokatirakoek antolatuta haurrentzat herri kirolak.
- 12:00. Hamaiketakoa herriko elkarleen eskutik, eta gazte asanbladak taloak prestatuko ditu.
- 12:30. Ekitaldia.

GAZTELU

- 19:00. Elkarretaratzea.
- 19:30. Herri kirolak.

- Ondoren. Kantu afaria egingo dute.

IKAZTEGIETA

- 12:00. Elkarretaratzea plazan.
- Ondoren. Hamaiketakoa.

LEABURU-TXARAMA

- 12:00. Herrira-ren logoa osatuz mosaiko bat egingo dute, baita elkarretaratzea ere.
- Ondoren. Toka txapelketa herrikoia, eta mokadutxo.

LEITZA

- 12:00. Herriko plazan lip dub azkarra grabatuko dute.
- Ondoren. Txistor jatea.

LIZARTZA

- 13:00. Plazan argazki herrikoia aterako dute.

ORENDAIN

- 12:00. Presoen aldeko hamaiketakoa sagardoarekin.
- 13:00. Argazkia herriko plazan.

TOLOSA

- 10:00. Trianguloan Elkartasun Eguna ospatzen hasiko dira.
- 12:30. *Plazak bete kartzelak hustu* ekimena, Trianguloatik abiatuta.
- 14:30. Bertso bazkaria Amaia Agirre eta Beñat Iguaran bertsolariarekin.
- 22:00. Kontzertuak Plaza Berrian, Switch eta Little Martik Selektah taldeekin.

ZIZURKIL

- 11:00ak inguruan. Herriko bi kirolarien apustua.
- 12:00. Elkarretaratzea.

BIRZIKLAPEN BIRA

Nik birziklatzen dut.

Guztionean, edertu dezagun Tolosaldea, hobetu dezagun mundua

GAUR TOLOSA BIHAR VILLABONA

Maiatzak 20 TOLOSA BELAUNTZA

www.tolosaldea.com



Olatz Illarregi, Idoia Otegi, Iñaki Gorrotxategi, Karlos Irazu eta Kolodobika Jauregi, museoen eguneko egitaraua aurkezten. I. URKIZU

Gauerdira arte atepak irekiz ospatuko dute, Museoen Nazioarteko Eguna

Lehen aldiz osatu dute, Tolosaldeko lau museoek, egun berezi honetarako egitarau bateratua

I. Urkizu Tolosa

Maiatzaren 18a mundu zabalean Museoen Nazioarteko Eguna da. Tolosaldeko lau museoek, beren egunarekin bat egin, eta gauerdira bitarte atepak irekiz ospatuko dute beren eguna, herritarrekin bat eginez.

Tolosaldea Tour-en laguntzaz, Topic, Gorrotxategi, Ekomuseoa eta Urmara museoek lehen aldiz osatu dute aurten, egitarau bateratua.

Honekin batera, gainera, aipatzekoa da datozen hilabeteetara begira, «turismoari begirako produktu erakargarriago bat» osatzeko bidean daudela lau museoen artean, Olatz Illarregi azaldu duenez: «Eskualdean lau museo

daude, eta jorratzen dituzten gaiak ere osagarria dira. Elkarrekin produktu erakargarriago bat osa zezaketela pentsatu dugu, eta lau museoen zirkuitu bat osatzen ari dira».

Urteko gaurik bereziarena

Lau museo hauek urte osoan zabalik izaten diren arren, baliteke larunbata bisitatzeko egunik berezietakoa izatea, antolatatu dituzten jarduerak bereziak medio.

Topic zentroan, esaterako, inauguratu zuten geroztik ospatzen dute museoen eguna, «eta pozgarria da gero eta museo gehiagok ospatzea», azaldu du Idoia Otegi.

Txotxongiloen eraikinean, ate irekiz gain, musika eskolako ikasleen piano, biolin nahiz akordeoi doinuak zuzenean entzun ahal izango dira, eta gainera, egunaren harira antolaturiko argazki lehiaketaren erakusketa ere ikusgai izango da, ekainaren 2ra bitarte.

Aipatzekoa da, sari banaketa

ere larunbatean izango dela, 17:00etan. Haurren kategorian, irabazlea Markel Zeberio izan da, eta gazteenean, berriz, Natalia Navascues. Helduei dagokienez, Maider Zubeldiak irabazi du lehiaketa, eta akzesita Ura Iturralde jakosko du.

Gorrotxategi museoan, berriz, ate irekiekin eta txokolate dastatzeekin ospatuko dute museoen eguna; bertan ere musika eskola

Tolosan Alde Zaharra gaur bisitatzeko egitasmoa errepikatuko dute

ko ikasleak ariko dira zuzenean. «Musikarena plazer handia da, bikoitza delako museo bisitatzearen gozamen», nabarmendu du Iñaki Gorrotxategi.

Tolosan, azkenik, gauerdira arte iraungo duen hitzordu berezia antolatu dute bigarren. Topic eta Gorrotxategi museoek atepak zabalduko dituzte, batetik, eta

horrekin batera, Tolosaldea Tour-ek bisita gidatua egingo du Alde Zaharrean eta Santa Maria elizan barrena, antortzekin: «Iaz sekulako arrakasta izan zuen, eta xarma berezia sortu zen», azaldu du Olatz Illarregi.

Alkizan ere, bertako Ekomuseoak ospakizun eguna izango du biharkoa, Karlos Irazuk azaldu duenez. Iaz hasi ziren, egurra usadio zahararen arabera nola lantzen den bisitari erakusten: «Aurten bigarren fasea egingo dugu, eta egurra arpanarekin nola lantzen zuten ikusi ahal izango dute bertaratuek. Aipatzekoa da, Koldobika Jauregi proposaturiko egitasmoa dela».

Honez gain, urte osoan bezala, haurtzako tailerrak izango dira, eta museo zabalik izango da goiz osoan zehar.

Azkenik, Larraulgo Urmara erakusketa eta tailerra antolatu dituzte biharko. «Panelak jarriko ditugu museoen egunean, jendek egitasmoa uler dezan».

• tolosaldean@hitza.info

↳ Museoen eguna

TOLOSA

GORROTXATEGI MUSEOA

■ 10:00, 11:00, 12:00 eta 16:00.

Bisita gidatua egingo dituzte, eta txokolate dastatzea eskainiko diete bertaratuei.

■ 19:00-22:30. Ate irekiak egingo dituzte, eta Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasleek zuzenean joko dute musika. Gainera, bertaratuei txokolate txuria dastatzeko emango diete.

TOPIC

■ 11:00-14:00 eta 16:00-20:00. Ate irekiak izango dira egun osoan, eta argazki lehiaketako irabazleen argazkiak ikusgai jarriko dituzte, ekainaren 2ra bitarte; sai banaketa ere larunbatean izango da, 17:00etan. Horrez gain, Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasleek ere musika zuzenean eskainiko dute Topic zentroan.

■ 21:00-01:00. Ate irekiak eta zuzeneko musika emanaldiak izango dira.

TOLOSALDEA TOUR

■ 22:30-00:00. Tolosaldea Tour-ek Alde Zaharreko eta Santa Maria elizako bisita gidatua eskainiko du, antortzekin.

ALKIZA

■ 17:00. Urmaren bisita gidatua egingo dute, eta erakusketa ere larunbatean zabalduko dute. Horrez gain, haurtzako tailerrak izango dira. Lekua hartzeko: info@urmara.com.

LARRAUL

■ Goiz osoan zehar. Ekomuseoan egurra lantzeko prozesua jendeari erakusteko egitasmoa. Bigarren fasea egingo dute museoen egunean: egurra usadio zaharren arabera nola lantzen zen erakutsiko diete bisitari. Egurra arpanarekin zerratuko dute. Era berean, *Eguraren jolasen* tailerra ere izango da, txalaparta nahiz toka bezalakoak ezagutzeko. Azkenik, hamaketakoa eskainiko diete bisitari, gazta eta ardoarekin.

Lehen sari bat eta izendapen bat Topic zentroarentzat

I. Urkizu Tolosa

Iberoamerikako Museo eta hezkuntzaren lehen saria jaso du Tolosako Topic zentroak. Hirugarren aldiz antolatu dute sariketa, eta Iberoamerikan kultur ondarea nahiz museo hezkuntza gaitasuna lantzen duten egitasmoa saritzea du helburua.

Guztira, 12 herrialde iberorikarretan, (Argentina, Brasil,

Txile, Kolonia, Costa Rica, Ekuador, Espainia, Guatemala, Mexiko, Peru, Portugal eta Uruguai) 86 proiektu bildu zituzten antolatzaileek.

86 egitasmo hauetatik 56 lehenengo kategorian sailkatu zituzten, garaturiko proiektuak edo garatze bidean daudenak zirelako. Beste 30 proiektu, berriz, bigarren kategorian bildu zituzten, oraindik diseinu eta plangintza

fasean dauden egitasmoak direlako.

ONCEren izendapena

ONCEk urtero ematen duen Urrezko Kaskabiloa sariarako izendapena ere jaso du Topic zentroak, azken egunotan.

Besteak beste, antolatzaileek pertsona itsuen kolektiboari egotzuriko jarduerengatik proposatu dute zentroa sarirako: «Uki-

pen-zeinu eta brailean idatzitako kartelak egokitu dituen Europako zentro bakarra da, txotxongi-loaren arteari eskainitako zentroen artean. Gainera, pertsona itsuei tailerretan parte hartzeko nahiz espazio abangoardista batean haien esperientziak partekatzeko aukera eman dute».

Maiatzaren 26an Donostian ospatuko da XII. Kaskabilo Lasterketak, Olatu Talka jaialdia dela

eta. Ohi bezala, helmugara iritsi ondoren, ONCEk Urrezko Kaskabilo emango dio, gizarte barneratzaile baten alde ekarpena egin duen erakundeari.

Sari hau bozka gehien jasotzen dituen erakundeari izango da, eta Topic-ekin batera DYA eta Donosti bus ere proposatu dituzte. Bozka posta elektronikoz eman daiteke.

• tolosa@hitza.info

Bi leitzar nor baino nor ariko dira final-laurdenetan

Jon Jaunarenaren eta Oinatz Bengoetxearen arteko partida izango da bihar, Hendaiaiko pilotalekuan, 18:00etan

Iñigo Terradillos

Buruz buruko pilota txapelketa hirugarren jardunaldia jokatu dute asteburuan, final-laurdeneko hiru partida, hain zuzen. Martinez Irujo eta Beroizen artekoa izango da gaur, 22:00etan; Bengoetxea VI.a eta Jaunarenaren artekoa bihar, Hendaian, 18:00etan; eta Idoate eta Urrutikoetxearen artekoa, etzi, Bilbon, 17:00etan. Final-laurdenetako beste partida, Barriola eta Olaizola II.aren artekoa hilaren 25ean izango da, leitzarrek eskuko minagatik atzertzea eskatu baitzuen.

Hiru leitzar ari dira lehia buruz burukoan une honetan, baina Oinatz Bengoetxearen eta Jon Jaunarenaren arteko partidaren ostan bi geratuko dira, hau da, bietatik aurrera egiten duena eta Barriola. Hain zuzen ere, herenegun zuten materialen aukekeraketa, eta bi pilotariak «gustura» geratu dira pilotekin. Jaunarenak adierazi duenez, material «ona» da. Bizia goan hautatu ditu, eta horregatik, Bengoetxeak argi du Jaunarena joko atzera er-

maten saiatuko dela. Bengoetxea, berriz, joko aurrean egiten ahalginduko da.

Jaunarenarentzat hirugarren partida da buruz burukoan, Olaizola I.ari eta Zabaletari aise irabazi eta gero. «Ez nuen espero hirugarren jardunaldia horrela iristea, partidaz partida landu dut txapelketa», azaldu du. Bengoetxearen aurkakoa «zaila» izango dela argi du. «Urte asko daramatza goi mailan jokatzeko, eta zaila izango da Bengoetxeari kontra egitea», dio. Bengoetxeak, buruz burukoan gehiena ongi egiten duela nabarmendu du: «Tantoak amaitzen artista da, defentsan lan handia egiten du eta sotamano itzela du, defentsatik erasora kolpe bakarrean pasa daitekeelarik». Frontisetik ahalik eta urrutien edukitzen saiatuko dela adierazi du Jaunarenak.

Bengoetxea VI.ak, berriz, hirugarren jardunaldian ekingo dio buruz burukoari. «Ongi» dagoela esan du, entrenamenduetan «oso ongi» ikusi duela bere burua, eta «ondo prestatuta» hasiko duela txapelketa. Jaunarenaren aurkakoa «oso gogorra» izango dela onartu du: «Jaunarena buruz burukoan oso arriskutsua da, indar ikaragarria ematen dio pilotari, eta gauzak oso ongi egin behariko ditut irabazi nahi badut».

Buruz buruzko Txapelketaren inguruan, denetarik egon dela

diote biek, baita sorpresak ere. «Maila bikaina ematen hasi diren pilotariak izan dira», esan du Bengoetxeak. «Beroiz eta Irujoen aurkako partida izango zela, sorpresa izan da», dio Jaunarenak. Buruz buruko horrelakoa izan ohi dela diote, edonork egin dezake aurrera. Gauza bat argi dago, ordea, bietako batek egingo duela, beraz, leitzar bat gutxiago izango da txapelketan. Barriolak ere aurrera egingo balu, bi leitzarren arteko hurrengo aurreko finalean izango litzateke.

Herriarteko txapelketa

Bestalde, Herriarteko Txapelketari dagokionez, Alegiak Zestoaren aurka jokatu du gaur, Alegian, 19:00etan, eta Tolosak Zumarragaren aurka, Tolosan, 20:00etan. Zesta puntan, igandean jokatu du Tolosak, Mutrikeren aurka, Tolosan, 11:00etan.

I. Ogiberri Txapelketa

Migel Soroaren oroimenezko I. Ogiberri Txapelketako final-laurdenetako bigarren jardunaldia jokatu dute bihar, Tolosako Beotibar pilotalekuan, 16:30ean. Kadeteen mailan, Laso-Oskoz Petite-Belokiren aurkakoa izango da; etorkizuneko mailan, Altunabarrendo Espinal-Alduntziren aurkakoa; eta elitekoen mailan, Arrieta-Gorrotxategi Urbietaren aurka, Tolosan, 11:00etan.

Aimar Odriozolak irabazi du Aurreku Txapelketa

I. Terradillos Ibarra

XXVII. Aurreku Txapelketa irabazi du Aimar Odriozola ibartarrak. 12 eta 15 urte artekoen artean jantzi du txapela, eta 7 eta 11 urte bitarteko sailean, Inaki Lasa donostiarra izan da txapel-duna Errenterian jokaturiko finalean. Desafioa eta Jorrai Dantza dantzatu zituzten dantzari finalistek, eta Odriozola izan zen puntu gehien batu zituenena. Ez da ibartarrak jantzen duen lehendabiziko txapela, aurreku txapelketa ugari irabaziak baititu. 15 dantzari lehiatu ziren finalean, eta iaz baino dantzari gutxiago parte hartu dutela esan dute.

Maiatzaren 24erako grebara deitu dituzte metalgintzako langileak

I. Terradillos

Grebara deitu dute ELA eta LAB sindikatuek Gipuzkoako metalgintzan, hilaren 24ean. Bada, LABek Gipuzkoako hitzarmenaren aldeko borroka deitu ditu langileak. Urte luzeetako borrokan irabazitako eskubideak galduko lirakeela hitzarmena galduko balitz adierazi dute, eta Madrilan erabakitakoa bete beharko litzatekeela. Bestalde, hitzarmena sinatu zuten lan erreformari aurre egiten zaiola, hitzarmena «blindatu» egin daitekeela, eta hitzarmen gabe langileen %75 eskubiderik gabe geratuko litzatekeela adierazi dute.

Urrezko Aizkorako finalerdiak eta harri-jasotze proba Leitzan

I. Terradillos Leiza

XV. Urrezko Aizkora Txapelketa ari da pixkanaka ekainaren 2an Azpeitian izango den finalera ailegatzen. Etzi, larunbatean, Bilbon maila nagusiko lehenengo finalerdiak jokatu dute. Igandean, berriz, Leitzako Amazabal pilotalekuan, 12:00etatik aurrera

23 urtez azpikoek bi finalerdiak jokatu dituzte. Lehenengoan Kañamares eta Rodriguez neurtuko dira, eta bigarrenengan, Erasun eta Saralegi leitzarrek. Harri-jasotzaile txapelketako proba ere izango da Leitzan. Hain zuzen ere, Josetxo Urrutia leitzarra ariko da, Jokin Eizmendi, Joseba Ostolaza eta Ibon Murgarekin batera.

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

ANTONINA OTEGI IZAGIRRE

(Antonina Ariztondoren alarguna)

Bere heriotzaren urteurrena

- Goian bego -

Tolosan hil zen 2012ko maiatzaren 20an, 92 urte zituela

Urtea pasa eta hutsunea tarte zure izaera hura gugandik aparte; oroimen ona berriz bizi garen arte, Agur atte-attona Egun Handirarte Zure seme-alabak eta illobak



Tolosako Olarrain berri baserria 2013ko maiatzak 17an

Tolosako Santa Maria parrokiak, bere oroimenean meza eskeintzen du, bihar larunbatea, 19:00etan.

MIKEL AIERTZA URRESTARAZU

Hitar oroituako gaitik MIKEL aldagera sartzen, hitaz oroituako gaitik MIKEL partidua jokatzeko, hitaz oroituako gaitik MIKEL goi bat sartu bakoitzean hitaz oroituako gaitik MIKEL zerura begiratzen, beti izango dake lekuko bat gu guntien dihotzean.

Basberri Kirol Elkarteak

MIKEL AIERTZA URRESTARAZU

Gure ingurua gertatu zaigu ekaitz baten egurtua ustegabeako eraso zakar batek jo eta lertua Mikel falta da ta faltako da

hau da esan lertua nahiz zauri honen mina eduki dihotzeraino sartus denok nahi degu berriz ikusi banatza hau indartua

Hire gurasoen ERNOPEKO lagunak.

Hilabete berriz berriz, Otegi Hilar gertatu zireko 100etan izango da Erredek.

ERREDEA, 2013ko maiatzaren 17a

MIKEL AIERTZA URRESTARAZU

(Ulola kaxtelako kaxtelari)

Zirituarekin egun batean amatsarekin batera heldu zitzaizun guri berriz burri gorri bat-batera orotundarik ezina zaigu

hitz bat ahotik atera beti gogozan izango gara gaur-gauriztik gaurera ulaberriko txolaren txiki kantariaren antzera.

ERREDEA, 2013ko maiatzaren 17a



14°
10°

GOIZA	EKAITZA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	14°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agurrak



Urte askoan Emilio!

Emilio Salaberria Etxebeste (Amasa-Villabona). Besarkada handienak herriko txikiari! Maite zaituztegu!



Zorionak!

Aitor Munduate Zabala (Anoeta). Bihar 5 urte egiten dituzu. Muxu handi bero bat Uxue eta etxekeon partetik.

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● agurrak

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Alkiza.** Igandean, Truke Azoka egingo da, Alkizan. 10:30etik 14:30era izango da. Parte hartu nahi dutenek, izena eman beharko dute azokan mahaia jarri ahal izateko. 943 69 39 30 telefono zenbakira deituz edo aiztondokodenborabankua@gmail.com helbidera idatziz.

■ **Berrobi.** Berrobiko Kultur Astearen barruan, literatur lehiaketako sari banaketa egingo dute 17:30ean, eskolako umeen emanaldia izango da.

20:30ean, Patata tortilla erraldoia egingo dute.

■ **Tolosa.** Tolosaldeko Mankomunitateak hasi duen *Birzikla-pen bira* Tolosako Trianguloa plaza egongo da, arratsaldez. Herriarrak birziklatzearen garrantziaz jabetzeko izango da.

■ **Leitza.** Leitzako XXXVI. Kultur Aroaren barruan, 19:00etan, Aralar Musika Eskolako ikasleen emanaldia izango da, zinean.

■ **Tolosa.** 40 Maiatza Borrokan

egitasmoaren barruan, *Hijos de las nubes* dokumentala eskainiko dute, 19:30ean, kultur etxean.

■ **Tolosa.** Oargi mendi taldeak maiatzeko azken asteburuan arroilen jaitziera egiteko irteera antolatuko du, Artazul eta La Lezeara. Izena hilaren 23a baino lehen eman beharko da: 688 69 86 42an edo info@oargi.org helbidera idatziz.

■ **Zizurkil.** Maiatza Saltsan ekimenaren barruan, 17:00etan, herriko haurrek bertsoak, dantzak eta kantak eskainiko dituzte. 20:00etan, Janari truke gastronomikoa egingo dute. El Salvador eta Euskal Herriko janaria prestatuko dute Urkamendi elkarteak, eta Aurrera plaza dastatzeko aukera eskainiko dute.

MUSIKA

■ **Berrobi.** Begi Gorri gaztetxean, Zurruma eta WayNot taldeen kontzertua izango da.

■ **Leitza.** Carlos Colin y los otros taldearen kontzertua izango da, Peritza tabernan.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalarretako lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.

■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.

■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.

■ **Lekunberri.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

■ **Tolosa.** Berria egunkariaren 10. urteurrena dela eta, Anje Duhalde musikariak kontzertua eskainiko du, 20:30ean, Leidor aretoan. Sarrerak lehiatilan edota TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren egoitzan eskura daitezke.

■ **Tolosa.** Los del Gas talde errenteriarra izango da Bonboreneko taula gainean. 22:30ean hasiko da.

AHORA!
ASTEAN

KMK13 TOLOSA

Maiatzak 19, igandea
Patinaje festa goizean zehar San Frantziskon (lasterketak, erakustaldiak) eta 17:00etan skate ikastaroa Usabalen

Maiatzak 20, astelehena
Kike Amonarrizen "Tolosa, euskal irriburu" hitzaldia Kultur Etxean 19:30ean

Maiatzak 20-24
"Tolosako euskal idazleak" erakusketa Haur Liburutegian eta Aranburu Jauregian